

## Hezkidetzaren beharra LGTBIQfobiaren aurka

Ukaezina da azken urteotan aniztasun afektibo sexual eta genero aniztasunarekiko jarrera aldaketa eman dela. Gure inguru hurbilean, esaterako, bisibilizazioan eta lege-berdintasunean aurrerapen itzelak ematen ari dira. Baina hau horrela izanik ere, badugu zeregin handia: atera berri diren datuen arabera salatzen diren genero indarkeriagatiko kasuen kopuruak gora egin du, bai eta sexu eta genero aniztasunaren aurkako gorroto delitu kasuek ere.

Nafarroa eta Euskal Autonomi Erkidegoan bazterkeriaren aurkako lege bana onetsi zen 2009 eta 2012an, hurrenez hurren. Lege horien ezarpenean eta bertan aipatzen diren helburuetan maila ezberdinetan izan da garapena, eta asmo ederrak agerturik ere, errealitateak bestelako egoera erakusten du. Momentu honetan Nafarroako Lege Antidiskriminatzaile berria lantzen ari da Parlamentuan. Aurrekoa ordezkatzeari du helburu, ikusitako gabeziak jaso eta esparru guztietara hedatuz berdintasun aukera.

Baina Hego Euskal Herria ez da irla bat berdintasunaren aldeko borroka honetan. Munduko herrialde askotan eta estatuko hainbat erkidegotan ere antzeko egitasmoak egiten ari dira, eta horietan guztietan helburu komun bat azaltzen da: LGTBI diren eta ez diren ikasle guztien aniztasunak baloratzea, biziaren aniztasun bisibilizazio eskubidea bermatzea eta bazterkeriarik gabeko gizartean biziitzea.

Baina lege horiek eta berdintasunaren aldeko ekimenak hartzen ari diren tamaina ikusita eta hezkuntza sisteman hezkuntza afektibo sexual anitza sartu dela ikusita bada oldartu denik. Oldartu ez ezik, eskoletara kontrako propaganda bidaltzera ausartu da talde ultrakatoliko bat. Doktrinamendua egitea egotzi digute, genero anitzaren aldeko legeak perbertsoak direla esan izan dute, kontzientzia askatasunaren zapaltzaileak omen gara... Ikastetxe publiko zein pribatuetara igorri dute euren kontrako jarrera irmoa eta horretarako idatzi bat proposatu dute Hezkuntza Sailera igortzeko eta euren seme-alaben eskolan aniztasun sexuala eta LGTBI ereduak baztertzeko ikastetxearen jardueretatik. Espainiako Konstituzioa ere aitutzen dute gurasoen konbentzimendu erlijioso eta etikoa defendatzeko. Penagarri. Baina ezin dugu txikietsi egitasmo hau, ez baita soltea, eta euren sokako

komunikabideen laguntza izanen dute. Eliza Katolikoaren sektore bat ere buru-belarri ari da. Horren adibide garbia ditugu Cañizares Apezpikuaren adierazpenak: "haurrak genero ideologian heztea maltzurkeria da" eta "horren kontra ekin behar du gizarteak, ez gelditu besoak gurutzaturik". Badituzte bitartekoak eta aukerak. Gurutzada eskuindar eta atzerakoi honek bultzada izanen du datozen hilabetetan, eta gure erantzuna egoki egituratu behar dugu.

**steilasek** aniztasun sexual eta genero aniztasunaren aldeko defentsa irmoa erakutsi du beti, ikasleak berdintasunean heztea baitugu helburu, oztopoak-oztopo. Hezkidetzatza dugu helburu eta bitarteko, ikasleak hezi nahi baititugu orain arte irizpide sexistei jarraiki gizon eta emakumeei egokitutako rol, balio eta jarrerak hartu gabe, estereotipo tradizionalak alde batera utziz.

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Parlamentuak eskoletara bidalitako egitasmo atzerakoiaren aurkako ebazpen bana onetsi dute. Ongi dago Parlamentuaren interpelazioa Hezkuntza Departamentuak neurriak har ditzan ikastetxeetan genero eta aniztasun afektibo-sexualaren aurkako materialak kontuan ez hartzeko. Ongi etorri dira honelako ebazpenak, beharrezkoak ere baitira. Baina instituzioetatik, Hezkuntza Departamentuetatik, bestelako erantzuna nahi dugu. Hezkidetzatza, aniztasunaren trataera egokia ildo estrategikoa (benetan) bada, bitarteko egokiak jarri behar dira, eta irakaskuntzako langileen derrigorrezko formakuntzatik hasi behar dugu. Kontzientziazioa eta formazioa. Hitzetatik haratago, erasoei egoki erantzuteko. Ikastetxeetan ere mezu argia jaso behar dute aniztasuna eta errespetua bermaturik dagoela ziurta dezaten. Legeak hala jasotzen du, eta Sailak hori bermatu behar du.

Gure aldetik inoiz baino konbentzimendu handiagoz segituko dugu hezkidetzatza aldarrikatzen, horren lanketa egiteko materialak sortzen eta ikastetxeetara bidaltzen. Aurtengo azaroaren 25ean ikastetxeetara bidali genuen unitate didaktikoaren leloak ongi baino hobeki islatzen baitu zer nahi dugun emakumeok eta LGTBI garenok: "Askea izan nahi dut, ez ausart". Eta bide horretan ez dugu inoren baimenik behar, baina bai, berriz, hezkuntza hezkidetzatzailearen beharra.



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus